

TOLOSA / 'Jatorrizko bertsioa' gunearen erabilpenak gora

Haur liburutegiaren kasuan, maileguan eramandako dokumentu eta bisitarien kopuruak pixka bat jaitsi dira. Dena den, oraindik kopuru horiek oso altuak dira (batzuetan altuegiak dituen baliabidetarako), arduradenen iritziz eta arrazoi osoz, izan ere, haurren liburutegiko datuak helduen liburutegikoen aldean bikoitzak dira.

'Jatorrizko bertsioa' gunearen erabilpenak gora egin du. Ingelesa, katalana, frantsesa, arabiera eta portugesa dira gehien irakurri diren hizkuntzak.

Helduen liburutegiari buruz, esan datuek ez dutela ez gora ez behera egin, iazko datuak mantendu dira-eta. Dena den, mailegu zerbitzuari dagokionez, azpimarratu behar da udako datuak inoiz baino altuagoak izan direla, batez ere abuztuan. "Nabaria da Tolosaldeko liburutegi gehienak itxita daudela", irakurtzen da aurkezutako txostenean.

Liburutegien Arteko Mailegua da erabiltzaileek gehien baloratzen duten zerbitzua. Zerbitzuari esker, kanpoko zein erkidegoko edozein liburutegitako dokumentuak eskura ditzakete. 2011n dokumentu gutxiago eskatu zaie gainon-tzeko liburutegiei.